



Ez ohiko ospakizunak

Aurtengo San Juan bezpera eta San Juan eguna ez ohiko moduan ospatuko dira. Koronabirusagatik, egoera ez ohikoa baita. Gizarte bizitza erabat aldatu da eta Udalak, egoeraren aurrean, pantailaren bidez jarraitzeko egitaraua osatu du



Maider Lainez alkatea eta Txitxu Ruiz Kultura zinegotzia, San Juan egunaren inguruko ospakizunen aurkezpenean. **AIURRI**

Errredakzioa ANDOAIN

Administrazio ezberdinek gertuko pertsonen arteko kontaktua saihestea helburu dute, Koro-

nabirusaren kutsatzea ekidin asmoz. Eta horrekin batera, prebentzio eta higieine mailako ohiturekin adi ibiltzeko deia

etenik gabe egiten ari dira. Gizarte bizitza erabat baldintzatu da, martxoaz geroztik. Eta Andoingo jaiak iritsi direnean,

Udalak herriko eragile ezberdinei programazio digitalean parte hartzeko gonbitea luzatu die.

Hori dela eta, San Juan bezperan eta San Juan egunean pantaila bidezko ikuskizunak eskainiko dituzte. Kultura zinegotzi den Txitxu Ruizek saio sinbolikoak izango direnak horrela deskribatu zituen: "Telebista saio formatua izango du, online emitituko dena zuzenean, Andoingo Udaren sare sozialak eta Youtube kanala erabiliz".

Asteartean Maider Lainez Andoingo alkatea eta Txitxu Ruiz zinegotziak egitasmo ezberdinak aurkeztu zituzten.

Agerraldian adierazi zuten, "COVID19ak ezarri dituen segurtasun eta osasun neurriek ezinbestekak baldintzatu dute ohikoak ziren ekintzak normaltasunez burutu ahal izatea". Ordezko programazioa multimedia izango da, beraz: "Aurrez grabatu diren edota zuzenean grabatuko diren piezak txertatuko dira, Udaletxeko pleno aretoa ala Ondarreta ikastetxeko patioa egun batzuetan telebista gunek bilakatuko direlarik".

San Juan sua egitea ez da baimenduko

Aurtengoan ez da San Juan surik egingo Goikoplazan, "eta gainerako eremuetan bestelako surik egitea galerazi egingo da". Horren ordez Udalak gau horretan San Juan zortzikoa eta Andoingo Ereserkia aldi berean abesteko gonbitea luzatu du. Txupinazoa zuzenean botako da, eta ondoren, auzoetako jai batzorde ezberdinek erantzuko diote suziriari, bakoitzak bere auzotik. Gauza bera gertatuko da San Martin elizatik egingo den kanpai errepikarekin, herriko gainerako eliza eta ermi-

Kartel lehiaketako irabazleak

San Juan jaiak bere horretan ospatuko ez badira ere, kartel lehiaketari eustea erabaki zuten. 17 urtetik gorako lehiaketan Jose Luis Pulido Calvorentzat izan da lehen saria, eta bigarrena Nerea Hernandezentzat. 12-16 urte artekoan Lier Agudo Olmedorentzat izan da lehen saria, eta bigarrena Eric Sanmillan Berasategirentzat.

tek ere aldi berean erantzuko baitute. Txalapartaren soinuak ere herri osora zabaltzeko asmoa dago. Benetako su errealik ezean, aurreko urteetako suaren artxi-boko irudiak emitituko dira.

Plazara ez hurbiltzeko deia

Udal ordezkariak adierazi zuten, "normalean, andoindarrei Goikoplazara hurbiltzeko deia egiten zaie. Aurtengoan alde-rantziz izango da, Udalak andoindar guztiei saio berezi horien seinalea bidaliko die norberak bere mugikorretik, portatiletik edo telebistatik jarraitu ahal izateko". Iristear dira ez ohiko ospakizunak.

SAN JUAN SUA EGITEA GALERAZITA EGONGO DA GOIKOPLAZAN, BAITA HERRIGUNE OSOAN ERE

UDAKO ESKOLAK

Aurrez aurrekoak
Online
Intentsiboak

ACADEMIA GF ANDOAIN



688 612 020

@ACADEMIAGFANDOAIN

Emankizunak internet bidez, ekainaren 23an eta 24an



Salbe Gorenaren ostean, San Martin Tours elizaren kanpoaldean ateratako argazkia 2019ko ekainaren 23an. Aurtengoa Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian grabatu zen, datorren ekainaren 23an ikusteko. Gailu elektronikoen bidez zabalduko da, Udalaren kanal ezberdinen bitartez. **AIURRI**



Zumeatarra danborrada. **AIURRI**

Pregoia Zumeatarra elkartearen eskutik

Elkartearen sorreraren 50. urteurrenean pregoia botatzeko aukera eskainiko diete

Erredakzioa ANDOAIN

2020koa urte seinalatua zen elkartearentzat. 50 urte bete dituzte, eta efemeridearen harira aitortza jaso behar zuten Santa Krutz jaietan. Koronabirusak eragindako krisiak, ordea, asmo horiek atzeratzea ekarri zuen. San Juan egunaren haria, pregoilaria aukeratzeko prozesuan, 2020ko txupinazoa Zumeatarra-ri dagokiola erabaki zen.

Santakrutzen hasierako danborrada, sagardo dastaketa, kirol jarduera ezberdinak... Gi-zarte eta kirol mailan Zumeatarra elkarteak ekarpen garrantzitsua egiten dio Andoaingo herriari.

EKAINAK 23

ASTEARTEA

21:00 Sanjuanak 2020 kartel lehiaketako sari banaketa.

On Pedro Aizpuruaren Salbe Goren Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako Abesbatzen kide batzuk kantatua.

Soka-dantza: Alkateak, eta udalbatzak bakarkako zortziko alpagata dantzatuko dute.

21:30 Olagain Txistulari banda San Juan zortzikoa joz.

22:30 Kanpai-errepika, txalaparta eta suziariak Goikoplazatik Andoaingo auzoetara.

Alkatearen agurra.

Txupinazoa: Zumeatarra Elkarte kideak.

Ondoren, Udal Musika Eskolako Banda, Olagain Txistulari Banda, Soinuak Musika Eskola, udal Musika Eskolako abesbatzak, eta Alberto Agirre abesbatzako kideen emanaldia.

Urki dantza taldeak San Juan zortzikoa dantzatuko du emanaldi labur bat eskainiz.

San Juan zortzikoa eta Andoaingo Ereserkia guztiok batera abesteko gonbitea luzatzen da: bakoitza dagoen lekutik, kaletik edo etxetik.

23:00 Musika saioa: Malkogarriyak taldea.

EKAINAK 24

ASTEAZKENA

11:15 Hasiera.


Andoaingo trikitilari eta panderojoleen saioa.

Haur Danborrada: Aita Larramendi, Ondarreta eta La Salle-Berrozpe ikastetxeetako ikasleek. 2018-2019ko irudiak.

Buruhandi eta Erraldoien konpartsaren historia, eta osatzen duten pertsonaiak ezagutuko ditugu Garazi Kamioeren eskutik.

12:00 Axeri Dantzaren jokoak.

12:30 Bertso saioa: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Miren Amuriza, Amaia Agirre, eta Ion Beloki. Gaijartzailea: Unai Ormaetxea.



13:45 Dantza saioak jarraian: Azelain Ballet elkarte, Klaap eta Joseba & Bakartxo dantza eskolak.

arruti

943 593 777 - Zumea 18, ANDOAIN



Udal Musika Banda kontsejupean, 1953an. Zutik: Joxe Mari Oizatzabal, Martin Huizi, Joxe Karrera, Felix Sanz, Francisco Etura, Pedro San Juan, Jose Luis Etxeberria, Alberto Agirre, Lazaro Otaegi, Luxio Aranburu (pittin bat makurtuta), Mariano Arberas, Patxi Olsagasti, Bernardo Aizpurua, Joxe Maria Weill, Juan Loinaz, Angel Urrutia, Martin Etxeberria, eta, Eugenio Etxeberria. Makurtuta: Angel Urrutia, Francisco Jalon, Luis Peña, Fernando Jalon, Jose Luis Ajona, Seve Garcia, eta, Juan Omeñaka. Lau bizi dira, Jose Luis Etxeberria, Luxio Aranburu, Luis Peña eta Juan Omeñaka. JOXE MARI OIZATZABAL

Historikoa izango den etenaldia San Juan jaietan

XX. mendean Sanjuanak ospatu ez ziren urte bakarra 1937a izan zen, Francoren kolpe militar faxistaren eraginez. Udal Musika Bandaren emanaldia egin zen, soilik. Iraganean Banda jaien arima izan ohi zen, eta zuzen-zuzenean jasan zuen diktadura garaia

Xabier Lasa ANDOAIN

Merezi du garai ilun hartan Udal Musika Bandak bizi izan zituen gertaeren kronika egitea, gerraren eta errepresio frankistaren testuinguruan. Udal Musika Banda tradizio eta itzal handiko kultur elkartea zen Andoainen, XIX. mendean sortu zenetik; herriko ospakizun guztietan parte hartzen zuen, eta errespetua eta estimazioa irabazita zeukan herritarrengandik. Udalaren soldatapean aritzen ziren orduan bere musikariak; esan daiteke nolabaiteko ospe edo "kategoria" hartzen zutela bertako musikariek gizartean. XX. mendeko lehen erdialdeko San Juan jaien programetan erreparatuz gero,

agudo ohartzen gara Udal Musika Banda zela jai horien bizkar hezur.

Iraganari begira jarrita, 1936ko kolpe militarren ondorengo gertakizunak aintzat hartuta, Tolosaldeetik eta Leitzaran bialararik barrena zetozen kolpistek Andoain abuztuaren 16an okupatu zuten. Udaletxean zintzilik zeuden bandera errepublikanoa eta ikurriña kendu eta monarkikoa jartzean, 40 urte iraungo zuen garai berri baten aldaketa sinbolizatu zen. Nafarroatik zetozen indar militarrek diktadura oinarri zuen estatu berri bat inposatu zuten, herrian topatu zituzten aldeko pertsonen konplizitate zuzenarekin.

Gora Sanjuanak!

Aterpe

Goikoplaza 7-ANDOAIN

943 117 986
672 725 978

ELIZONDO

FERRETERIA TABERNA

SANJUAN JAIE ZORIONTSUAK!

La Salle etorbidea, 1- Andoain

Ferreteria: 943590302
Taberna: 943592802

Olloki

Gora Sanjuanak

Goikoplaza, 6-7 Andoain

943 300 603



Musikariak ere jazarpenen biktima izan ziren

Agudo jarri zuten abian erre-presio bortitzaren makinaria, mugimendu nazional-katolikoarekiko "desafecto"-ak ziren herriarren aurka. Hilketez eta atxiloteketez gain, bestelako jazarpen motak erabili zituzten etsaien aurka. Bandako kide ugari abertzale eta ezkertiarak ziren, eta horietako gehienek Andoainetik ihes egin zuten abuztuaren lehen egunetan, frankistak sartu bezperatan. Herrian geratu ziren bakanetako bat, ordea, Gregorio Martinez klarinete jolea, irailaren 3an atxilotu zuten; udaletxeko kalabozoan preso eduki gauez, eta hurrengo egunean hilerriko hormaren kontra jarrita fusilatu egin zuten. Martinez, ezkongabea, Moleda lantegiko langilea zen eta UGTko sindikalista. Andoaingo Udal Musika Bandakoa ez ezik, Donostiako Udal Bandako kidea ere bazen.

Bestalde, Andoaingo Udalak garbiketa prozesua abian jarri zuten handik hilabete batzuetara, bere langileen ideologia ikertzeko eta aurkariak kargugabetzeko asmoz, Udal Musika Banda osatzen zuten kideak ere ekimen horren biktima izan ziren.

Andoaingo Udal Artxiboko agiriez baliatu gara ondorengo kronika osatzeko.

Jose Treku alkate izendatzeko asmoz Andoaingo Udalak 1937ko martxoaren 16an ospatu zuen udalbatzan, Ignacio Urkijo Gobernu Deleatuak hitza hartu eta zera adierazi zuen, udalbatzen akta liburuan irakur daitekeenez: "... De manera elocuente, hace atinadas advertencias sobre los diversos aspectos de la vida municipal: juzga en primer lugar, de imperiosa con-



Gregorio Martinez Andoaingo Udal Musika Bandako klarinete jolea zen. UGT sindikatuko kidea, Andoaingo hilerriko horman fusilatu zuten. ANTONIOMARTINEZ

veniencia la reorganización de la Corporación municipal, pidiendo a la misma actúe si bien con justicia, con energía e inexorabilidad en cuantos asuntos afectan al ayuntamiento, sobre todo en la depuración del personal, combatiendo los enemigos de España, a ese enemigo tanto más peligroso cuanto más difícil de descubrir que se ha infiltrado en los municipios, en la sociedad y en la familia, pues con ello se procurará el engrandecimiento patrio y resurgimiento nacional.

1937KO APIRILEAN UDAL MUSIKA BANDAKO HAMALAU MUSIKARI KALERATU ZITUZTEN

Espera de los rectores de este pueblo, que rigen sus destinos desde este momento, llenarán esta misión sin lugar a dudas, cumpliendo con un deber si lo hubiere, un solo enemigo de España".

Biharamunean bertan, Udalak nolabaiteko polizia batzordea osatu zuen, gobernu delegatuaren agindua betetzeko asmoz. Une hartan udal plantilla osatzen zuten zortzi langileekin ekin zio-

KALERATUTAKO MUSIKARI GEHIENAK BIZKAIKO FRONTEAN BORROKAN ARI ZIREN, EDO ERBESTEAN

ten ikerketari; horien artean, 1914az geroztik Udal Musika Eskola eta Bandako zuzendari Alberto Agirre zegoen, ideologiaz eskuineko karlista tradizionalista zena. Batzorde horrek lan samurra eduki zuen, egia esanda. Izan ere, ordurako errejimenak etsaitzat zeuzkan Udal langileak erailak ziren, preso zeuden, edota ihes eginda zebiltzan. Apirilaren 13an prozesuaren emaitzak jakinarazi zituen Batzordeak. Alberto Agirre zuzendariari dagokionez, ez zen zalantzan jarri frankismoarekiko leialtasuna.

Bandatik kanporatutako musikariak

Apirilaren 28an, Udalak egin zuen udalbatzan, Udal Musika Bandako hamalau musikari kaleratu zituen: Jose Mari Oiartzabal, Teofilo Usandizaga, Lazaro Otaegi, Juan Barandiaran, Justo Perez, Ramon Salazar, Manuel Pascual, Antonio Etxeberría, Mariano Arberas, Fermin Altuna, Moises Lozares, Ramon Etxeberría, Jose Karrera eta Francisco Olalde. Ordurako, gehien gehienak Bizkaiko frontean borrokan zebiltzan, Errepublikaren aldeko Euskal Ejerzitoan, eta bakarren bat erbesteren.

Hurrengo egunetan ospatu ohi ziren Santakrutzak, baina Udalak, soilik bi ekitaldirentzat baimena ematea erabaki zuen, eta Udal Musika Bandaren eskutik biak ere: Santa Krutz prozesioko diana eta eguerdiko kontzertua. Dantzaldiak bertan behera utzi zituen: "... quedando suprimidos, debido a las actuales circunstancias, los bailes de la tarde y noche".

Sanjuanak zetozen agudo. Bada, horiek ere murrizketa jasan zuten, are zorrotzagoa jasan ere. Ondorengo erabakia hartu bai-

tzuen Udalak ekainaren 23ko udalbatzan jakinarazi zuenez: "Suprimir toda fiesta profana en conmemoración de San Juan Bautista cual otros años se celebraban con el mayor entusiasmo ya que las actuales circunstancias no aconsejan expansionarse con regocijo limitándose en todo caso a que por la Banda, siguiendo tradicional costumbre, se toque el día veinticuatro la correspondiente diana".

Musika Banda, kidez hustuta

1937ko irailaren 25ean egin zen batzarraldian, Udalak berak onartu behar izan zuen Bandaren ahultasuna, "(...) Encontrándose en cuadro la Banda municipal por la casi total ausencia de los individuos que la constituían y que oportunamente fueron por esta causa dados de baja en la misma, acuerda interesar del Sr. Director que se ocupe de su inmediata reorganización por medio de los educandos que asisten a las clases de la Academia de Música, y para que les sirva a la vez de ensayo, se reanuden los conciertos de los días festivos, a pesar de lo que y dadas las actuales circunstancias, no serán permitidos los bailes públicos".

Era horretan, Agirrek Musika Eskolako ikasle gaztetxoak hautatu behar izan zituen. Hona zeintzuk: Angel Urrutia, Eugenio Etxeberría, Francisco Etura, Martin Huizi, Luzio Langara, Pedro Barandiaran, Liberto Aizpurua, Alberto Urrutia, Martin Etxeberría, Jose Etxeberría, Antonio Martinez, Isidro Alkain, Migel Aginaga, eta, Ramon Olano. Era berean, SAPA lantegira lanera aldi baterako etorriak ziren Soraluze eta Bergarako zenbait langile ere erreklutatu zituzten Banda osatzeko. —>

AKER BELTZ
T A B E R N A
Gora Sanjuanak!
Nafarroa plaza, 1B
ANDOAIN. 943 300 846

MUJIKA TOLARETXIPI ANAIK
MAPFRE
Eskola kalea, 8
ANDOAIN
943 592 307
Faxa: 943 300 161
imujika@mapfre.com

PLASTIGAUR
Innovation is flexible
943 590 311
Ama Kandida Etorb. z/g
ANDOAIN
www.plastigaur.com

→ 1938az geroztik, Santakruzak eta Sanjuanak poliki-poliki berreskuratzeari ekin zioten, aurreko urte eta mendeetako formatu jakin bati eutsiz, alegia, erlijioarekin lotutako errituak eta musika emanaldi desberdinak –Udal Musika Banda nahiz txistulari eta dultzaineroak– oinarri izanda.

1936-1939 epealdi bortitzean, herri edo auzoetako jaiak indartzea baino gehiago, errejimenaren ahalegina ejertzitzaren aldeko mezuak gizarteratzea eta herritarren atxikimendua lortzea izan zen. Horrela, izaera belikoa zuten ekitaldi publikoak berreskuratzeari ekin zion: Espainian zehar hiri baten konkista militarra gertatzen zen aldiro desfilea kaleetan zehar, eta abar.

Matxinatu frankistek, ofizialki, 1939ko apirilaren 1ean iragarri zuten Estatu espainiarra

militarki konkistatu zutela, eta garaipen hori ospatzeko, Andoaingo Udalak egundoko ospakizunak antolatu zituen apirilaren 10ean eta 11n. Ekitaldien artean, aipatzekoak dira lubakietan hildako soldadu frankisten aldeko meza eta omenaldia, edota kalean gora eta kalean behera ibiltzeko antolatutako desfile handia. Egun batzuk lehenago, apirilaren 8an Jose Treku alkateak bandoa kalera-tu zuen ospakizunen berri emanez. Juan Flamarique aguazilak auzoz auzo ahots goran irakurri zuen. Hona pasarte bat: “... *Es preciso que el vecindario sin excusas ni pretextos que nunca serían justificados, asista en masa a las funciones y actos, tanto a los organizados para el lunes en memoria de los que dieron generosamente su vida en los campos de batalla, como*

a los del martes demostrando adhesión incondicional a la Nueva España y a su Caudillo Franco, bien entendido ya que todas las industrias de la localidad guardarán fiesta en los dos días y el comercio cerrará sus puertas durante la celebración de los principales actos, a quien así no lo haga se le considerará desafecto al entusiasmo que todo buen patriota debe sentir en estos momentos de Paz...”.

Egitarau hori gauzatzeko, ezinbestekoa izan zen Udal Bandaren parte hartzea beste behin ere. Ordurako, 1937ko apirilean Udalak kanporatu zituen musika gehienak kartzelan ziren, edo langile batailloietan esklabu gisa lanean ari ziren. Horietako batzuk, zigorrak bete ostean, herrira itzuli ahal izan zuten. Eta bakarren batek, Udal Musika Bandan berriro parte hartzeko aukera eduki zuen, bostek bai behinik behin: Mariano Arberas, Joxe Mari Oiartzabal, Teofilo Usandizaga, Lazaro Otaegi eta Joxe Karrera. 1953ko argazkian, astekari honetako 4. orrialdean argitaratu dena, bostak ageri dira.



ARBERASFAMILIA

**1938AN HASITA,
SANTAKRUTZAK
ETA SANJUANAK
BERRESKURATZEARI
EKIN ZIOTEN**

**FRANKISTEK 1939KO
APIRILAREN 1EAN
IRAGARRI ZUTEN
ESPAINIA MILITARKI
KONKISTATU ZUTELA**

Musikaren tradizioa, historian

Musika ezinbesteko elementua izan da ospakizunetan. Andoaingo kaleetan musika instrumentu ugari entzun izan dira, hamarkadaz hamarkada. Argazkia Kaleberrian aterata dago, 1936ko Gerra piztu aurretik. Exkerranea eta Bekoplaza artean ageri dira bi musikariak. Ezkerrekoa Mariano Arberas da, eta eskuinekoa ezezaguna.



ANDOAINGO UDALA

**ZAUDEN LEKUAN
ZAUDELA GOGORATU**

BAIETZIK GABE EZETZ DA



**Cambridgeko azterketen
prestakuntzarako zentro
homologatua.**

**Prestakuntza trinkoa:
Cambridgeko azterketak
ekainean eta uztaillean.**

**2020-21 ikasturterako
matrícula zabalik**

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen
Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839
www.andoainenglish.com



Arropa eta osagarriak

**Kale Nagusia 6
Andoain
Tel. 943591224**

SALDIAS
ARRANDEGIA

Herria bizirik!

**ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704**



Goikoplazan San Juan sua egiten hasi zirenekoa

1955eko San Juan jaietako programaren azalak herriko plazan sua irudikatzen zuen. Hura izan zen Goikoplazan egin zen lehen urtea, ordura arte auzo ezberdinetan egiten baitzen. San Juan sua plazan egitearen proposamena herritarrena izan zen

Erredazkia ANDOAIN

San Juan sua Goikoplazan egin hasi zela 65 urte betetzen direnean, inork aurreikusten ez zuen galerazpena iritsi da. Udalak, gainera, oso argi utzi du aurtan ezin dela surik inon piztu.

1955a bitarte, San Juan bezperako sua auzune ezberdinetan egiten zen. Antza, herrigunea handitu ahala, herritar talde batek sua herriko plazan egitea eskatu zuen. Eta eskaera hori errealtate bilakatu zen 1955ean.

San Juan bezperan, urte hartan, kanpai-errepikarekin hasi ziren. Jarraian, Udal Musika Bandak eta txistulari taldeak

kalejira egin zuten Erraldoi eta Buruhandien Konpartsarekin batera. Luis Fraca zen orduko hartan Bandako zuzendaria. Pepe Andoainen akordeoi orkestrak ere kontzertua eskaini zuen.

Garai hartan Sokamuturra antolatzen zen Andoainen. Denborarekin oso toki gutxitan mantendu da.

Plazaren izena

Goikoplazak izen ezberdinak hartu ditu historian zehar. Frankismo garaian Plaza de España izena hartu zuen, eta Errepublikako garaian Sabino Arana Goiri plaza izan zen.



Goikoplazak Plaza de España izena hartu zuen, Frankismo garaian. 1955ean egin zen San Juan sua, lehen aldiz plazan. UDALARTXIBOA

PROGRAMA DE FIESTAS

Día 23 - Jueves

A las siete de la tarde. — Volteo de campanas y lanzamiento de bombas y cohetes, anunciando al vecindario el comienzo de las fiestas.

A las ocho. — La Banda Municipal y Chistularia, interpretando la Marcha de San Juan, y precedidos por los Gigantes y Cabezudos, recorrerán las calles de la Villa. Seguidamente, y en la Plaza de España, a los acordes de la indicada marcha, se prenderá fuego a la hoguera preparada al efecto, por los barrios de la localidad.

A las nueve. — Llegada del grupo de Acordeonistas de "PEPE ANDOAIN", donde en la Plaza de España, alternando con la Banda Municipal que, ejecutará bailarines hasta la una de la mañana, amenizará en Concierto.

Día 24 - Viernes

A las siete de la mañana. — Diana a cargo de la Banda Municipal.

A las ocho. Interesante


Sokamuturra

donde se podrán de manifestar las buenas cualidades que, para el Croes, tienen los jóvenes andoaindarras.

A las nueve. — Llegada de la renombrada

Banda Municipal de Pasajes

la cual, al son de alegres pasacalles, recorrerá la Villa.



Sorabilla auzoa, 218
20140 Andoain
Tel.: +34 943 30 40 70
Faxa: +34 943 59 41 31
info@itasa.es



Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



San Joanetan,
mingaina euskaraz jarri dantzari.



andoaINDARRA
euskaraz

Araukak betez, Kaletxiki jaietan murgilduko da

San Pedro egunaren bueltan ospatu ohi dira jaiak, Kaletxikin. Ofizialki ospatuko ez badira ere, auzotar batzuren ekimenez ekitaldi-sorta antolatu dute. Konfinamenduan sortutako auzo giro onari jarraipena eman nahi diote, horrela

Mikel Arberas ANDOAIN

Eneko Urdangarin kaletxikitarra, beste hainbat bizilagunekin batera, jaiak jarraipena emateko lanean ari da.

Nortzuk antolatu dituzue jaiak?

Berrogeialdian balkoietan giroa jarri genuen bizilagunok antolatu dugu. Jaiak bertan behera geratuko zirela adierazi zuten, baina bizilagunok ekintza batzuk antolatu zitezkeela pentsatu genuen, betiere segurtasun eta osasun neurriak mantenduta. Auzoa alaitzeko egitarau txikia eta xumea antolatu dugu.

Beharrezkoa ikusi duzue?

Konfinamenduan auzo txikia izanda lortu dugun harremana mantentzeko, urtean zehar horrelako ekitaldi gehiago egiteko asmoa dugu. Kaletxikiko jaiak batez ere guretzako dira; zera esan nahi dut: Ez da txosnagunerik egongo, ezta gaueko musika emanaldirik ere. Ospatuko diren ekitaldiak batik bat auzotarrei begira izango dira.

Zailtasunak izan dituzue jaiak antolatzeke garaian?

Ilusio handiarekin antolatu ditugu jaiak. Hala ere, Udal Gobernu taldeak ez digu erantzun ea antolakuntzarako baliabideak jasoko ditugun; hau da, ez dugu jaietarako aurreikusita zegoen aurrekontuetatik zatiren

bat jasoko dugun festak aurrera eramateko. Gauzak ez badira nahi bezala irtetzen, geure poltsikoetatik jarri beharko dugu dirua. Zailtasunak batez ere Gobernu taldearen aldetik datoz. **Aurrekonturik gabe nola antolatuko dituzue jaiak?**

Ulegarria iruditzen zaigu jaietan egingo diren hiru kultur ekitaldietan sarrerak ordaindu behar izatea. Garbi dugu auzoa bizirik mantendu nahi bada kulturari bultzada bat eman behar diogula; izan ere, kultura oso garrantzitsua da eta jendeak ez dio garrantzia nahikorik ematen. Kultura ez da soilik Benito Lertxundi, baizik eta abeslariaren atzean dauden soinu eta argi teknikariak, muntaiarako langileak, etab. Sektore oso garrantzitsua da, eta guk kultura sustatzen jarraitu nahi dugu.

Zenbait bilera egin ditugu, eta beti eduki dugu Berrozpeko mojen eta La Salle Berrozpe ikastetxearen laguntza. Segurtasun eta osasun neurriak mantenduko ditugu; zeren eta, ekitaldiak patio barruan egingo dira eta, beraz, bi metroko distantzia mantenduta badakigu zenbat eserleku jar daitezkeen. Eguraldi txarra egingo balu ekitaldiren bat Berrozpeko baselizara eramango genuke.

Jaien aurreikuspenak onak dira?

Beno, ez dira beste urtetakoak. Jakitun gara zein egoeratan gauden, baina bai, uste dut auzotarrak animatuta daudela. Gainera, balkoiak apainduko ditugu tela berezi batzuekin.

Amaitzeko auzoari, herriari eta Gobernu taldeari esan nahi diet osasun eta higiene neurriak beteko ditugula. Horixe nabarmendu nahi dut, segurtasun eta higiene neurriak bermatuko ditugula.

EGITARAUA

Ekainak 26, ostirala

19:00 Auzoan zapia jarriko da eta ondoren pregoia, jaiak hasiera emateko.

19:30 Bertsolariak.

Ekainak 27, larunbata

12:00 San Juan Bataiatzailea egoitzako aiton amon eta langileei omenaldia.

13:15 Kantujira. Sagardo txapelketa *on line*.

18:00 Kontzertua.

19:30 Danborrada.

Ekainak 28, igandea

09:00 Diana.

09:30 Mendi irteera.

12:00 Bingoa.

13:00 Irrintzi txapelketa.

14:30 Auzo bazkaria.

19:00 Zapia kenduko da, jaiak amaiera emateko.



Aurtengo jaietako kartela. IDOIA SAN SEBASTIAN

EKHIA 606 301 844
physio www.ekhiaphysio.com
FISIOTERAPIA
AKUPUNTURA
OSTEOPATIA
Manuel Lekuona plaza, 1- behea. ANDOAIN

STOP
LIBURUDENDA
Agustin Leitza, 27 - 943 591 603 - ANDOAIN

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA - URDAITEGIA

- Esne produktuak, hautatutako kontserbak eta kalitatezko okela
- Euskal Herriko produktuetan oinarritua



Kaletxiki, 15
943 590 258
ANDOAIN

JOSEBA
altzariak
Ondo pasa Santakruzetan
Kaletxiki, 10 - ANDOAIN • 943 590 761 • mueblesjoseba@hotmail.com

- Somier elektrikoak
- Koltxo biskoielastikoak
- Altzari osagarriak

URMENA
ETXEBIZITZA BERRIAK
KALE TXIKI 5-7
ANDOAIN

URMENA PROMOTIOAK

ERMO

Aiurri iraunarazteko kanpaina berezia

Aste honetako Aiurri astekaria Andoaingo eta Urnietako etxebizitza guztietara iritsiko da, publizitatea eta harpidetzak lortzeko kanpainaren baitan. Aiurri iraunarazteko ezinbestekoak baitira biak, harpidedunak zein iragarleak

Erredakzioa ANDOAIN

Koronabirusaren eraginez, egotea paradoxikoa sortu da tokiko hedabideetan. Inoiz baino beharrezkoagoa bilakatu da, jende askoren informazio iturri bilakatu delako. Aiurriren kasuan nabarmena da hori, martxoko eta apirileko audientziak Tokikom tokiko hedabideen bateraguneko onenen artean kokatu baitziren. Informazio jariora biderkatu egin zen aste horietan, webgunearen bidez eta sare sozialen bitartez. Era berean, konfinamendu garaian, publizitateari zegokion diru-sarrera nabarmen murriztu da. Merkataritza itxita, publizitate tarteak saltzea nekez lortuko da. Beraz, informazio jarioraren hazkundearekin batera, Aiurri diru iturrien beherakada nabarmena pairatzen ari da.

San Juan eguna egun handia da Andoaingen. Datarekin bat eginez, Aiurri astekariaren 9.700 ale inprimatu eta banatuko dira egun hauetan. Helburua bikoitza



Andoaingen Aiurri astekaria eta Aiurri hamaboskaria banatzen dira. Eta urte osoan zehar argitalpen gehiago: Kantu Liburuxka, Egutegia, Ikusbera haur aldizkaria... AIURRI

da. Batetik, azken hilabeteotan publizitatean galdu den diru kopurua berreskuratzeko ahalegina. Eta, bestetik, harpidetza kanpaina egitea. Aiurrik aurre egin behar badu, iragarleen eta irakurleen eskutik egin beharko

du. Udal finantziarioa ezinbesteko da, baina hori bezain garrantzitsua da beste finantzabideak bermatzea. Pantailaren bestaldean dagoen irakurleak harpidedun egiteko aukera dauka orain.

Harpidetza sustatzeko kanpaina

Pantailan Aiurriko albisteak, argazkiak eta bideoak ikustera ohituta dagoenari euskarazko hedabidearen aldeko ekarpena egiteko gonbidapena luzatu nahi zaio. Aiurri iraunarazteko behar-beharrezkoa baita irakurleen ekarpena.

Formularioa harpidetza egiteko:

Izena
 Adierazkia
 Nafararen agina
 Harpidetza
 Herria
 Posta kodea
 Telefonoa
 Posta elektronikoa
 Komunikabidea (BIBAN)

Harpidetza-txartela

Abendura bitarteko harpidetza-saria 25 eurokoa da. Aiurri.eus webgunearen bitartez oso erraz bete daiteke harpidetza-orria. Paperean aurkeztu nahi izanez gero, txartela bete eta Aiurri edota Ernaitzan utzi.



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



25 €

Harpidetza egiteko,
Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da
BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

*OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Alvarez zerrendaburua, gainerako kideekin batera. AIURRI

Agintaldiaren balorazioa egin du Andoaingo EH Bilduk

2019ko Udal hauteskundeetan garaile izan zen hautes-zerrendak ageraldia eskaini zuen Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN

Lehen urtearen balorazioa hitz bakar batean laburbildu behar-ko balu, hitz hori "atzerapausoa" dela nabarmendu zuen Andoni Alvarez bozeramaileak. Gobernu osatzen duten PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien programa

bateratua faltan botatzeaz gain, lan egiteko eredu bertikala salatu zuten. Oposizioa bazterrean utzi dutela erantsi zuen. EH Bilduk arduraz jokatu duela iragarri zuen: "Andoaingo lehen indar politikoa gara, eta hori ardura handia dela uste dugu".

Hauteskunde mahaia osatzeko zerrendak

Uztailaren 12ko hauteskundeetara begira, Andoaingo eta Urnietako Udalek egin dute zozketa

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietako Udalak hauteskunde mahaia osatu beharko dituzten kideen zozketa burutu zuen aurreko astean, eta webgunean irakurgai dagoen oharren arabera, "zozketa horretan mahaiaietan egotea tokatu zaien pertsona horiei ahalik eta azkarren bidaliko zaie jakinarazpena".

Andoaingo kasuan, astelehenaz geroztik Andoain.eus edota Aiurri.eus webguneetan ikusgai dago zerrenda. Bertan egon behar dutenen NAN zenbakia agerri da, eta baita bete behar duen arduraren zehaztapena ere.

Hamahiru hautagaitza ezberdin lehiatuko dira, uztailaren 12an

Aulki zuriak, alderdi animalista eta beste zenbait alderdi lehiatuko dira Gipuzkoako 25 eserlekuetako baten bila

Erredakzioa URNIETA

Apirileko deialdia bertan behar geratu zen, Koronabirusagatik. Aste gutxiaren baitan deituko dituzte Hauteskundeak Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Hauexek:

- Euskal Herria Bildu (EH Bildu).
- Euzko Alderdi Jeltzalea- Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV):
- Euskadiko Alderdi Sozialista Euskadiko Ezkerra Pse-Ee (PSOE).
- Animalien Tratu Txarren Kontrako Alderdi Animalista (PAC-MA).
- Libres Por Euskadi (LxE).
- Escaños En Blanco / Aulki Zuriak (EB / AZ).
- Bidezko Mundurantz Por Mundo Más Justo Pum+J.
- Equo Berdeak – Verdes Euskadi.
- Vox (VOX).



Daniel Lizarralde urnietarra, Aulki Zuriak alderdiko zerrendaburua Gipuzkoan. AIURRI

- PP+Cs (PP+Cs).
- Union Cristiano Demócrata Española (UCDE).
- Elkarrekin Podemos-IU (PODEMOS-AHALDUGU/EZKER Anitza-IU).
- Recortes Cero-Solidaria-Los Verdes (Recortes Cero-Lv-S).

BRIKO GOROS
Gora Sanjuanak!

GOROSTIDI Burdindegia
Kale Nagusia, 3
Andoain
620 881 472
www.brikogoros.com

www.txapelasybordados.com
www.txapelabordatuak.eus

Keinu

Kale Nagusia, 12.
ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com

Erremontea Galarretan, asteburu honetan hasita

ERREMONTEA Ostegunean Galarreta frontoiaren 50. Urteurrena Txapelketa aurkeztuko dute, eta larunbatean hasiko dira norgehiagokak. Aiurrik erremonteko txapelketen jarraipena egingo du, aurrerantzean



Aiurrik jarraipen berezia egingo du, webgunean zein astekarian. UTS

Mikel Arberas HERNANI

Ostegun honetan, arratsaldeko 18:00tan hasita, Galarreta pilotalekuan 50. Urteurrenaren Txapelketa aurkeztuko dute. Bertan txapelketaren xehetasun guztiak argituko dituzte, bereziki partaidetzari dagokionean. Bestalde, Aiurrik jokatu diren partiden datak ezagutu ditu; ligaxka ekainaren 20an abiatuko da, eta ekainaren 27an eta uztailaren

4an jarraipena izango du. Behin partida horiek jokatu, finalaurrea uztailaren 11n jokatu da. Azkenik, finala uztailaren 18an ospatuko da.

Berrikuntza modura, EITBk txapelketa osoa eskainiko du zuzenean.

Pasa den ekainaren 13an 50 urte bete ziren Galarreta frontoia ireki zutenetik. Hernanin kokatuta dagoen frontoia, erre-

montearen babesleku izan da betidanik. Ez dira kirol asko jokalekuarekin horren harreman estua dutenak; izan ere, erremontean aritzeko pilotalekuak neurri eta baldintza bereziak behar ditu, eta munduan barrena gutxi dira baldintza horiek betetzen dituztenak.

Erremontek garai ilunak bizi izan ditu, batez ere, azken hila-

beteetan koronabirusak sortutako pandemiaren ondorioz ateak itxi behar izan dituztelako. Dena den, larunbatean zabalduko dira ateak eta 50. urteurrena ospatzeko moduan egon da, 116 urte bete dituen euskal pilotaren modalitatea bultzatzen jarraitzea merezi du eta.

Erremontearen jarraipena

Aiurrik erremontearen jarraipena egingo du. Kirol ikusgarria eta bakarra izateaz gain, elite mailako hiru pelotari daude Urnietan: Imanol Ansa, Josu Arruarte eta Ander Goikoetxea. Urteak daramatzate maila erakusten kirol zail honetan.

Horrez gain, erremontearen oinarri historikoa Hernanin kokatzen da eta euskal kulturako zati garrantzitsua da. Orain pisu gutxiago duen arren, duela bi hamarkada gorenean zegoen pilota modalitatea izan zen, non, jendea eta dirua leku batetik bestera mugitzen zuen.

Gauzak horrela, esan bezala, Aiurrik erremontearen jarraipena egingo du, paperezko edizioan eta internet sarean, webgunean nahiz sare sozialetan. Aiurrik webgunean, erremontearen atala sortu du, modu zehatzagoan jarraitu nahi duenak aukera hori eduki dezan. Partidetako kronikak, argazkiak eta albisteak argitaratuko dira Interneten, sare sozialetan eta astekarian, une oro informatuta egoteko.


LARUNBAT HONETAN ABIATUKO DA 50. URTEURRENEKO BINAKAKO TXAPELKETA



Imanol Ansa Urruzola.

Hiru urnietar lehian

Galarretan goi mailan arituko diren erremontisten artean hiru urnietar izango dira.



Josu Arruarte Zapiain.



Ander Goikoetxea Ugalde.

LIGAXKA:
Ekainaren 20 eta 27.
Uztailaren 4.

FINALAURREA:
Uztailaren 11.

FINALA:
Uztailaren 18.

Aurrera Markelekin!

Markel Carmonaren gaixotasun arraroaren ikerketan laguntzeko elkarte bat sortu dute gaztetxoaren lagunek, senideen bultzadaz; azaroan lau eguneko egitaraua eta diru bilketa ekitaldia antolatu dute; Xabi Salillasek 72 ordu emango ditu kirola egiten, etenik gabe

Andoni Urbistondo URNIETA

Markel Carmonak 13 urte ditu. Oinez ibiltzen da azken aldian, Maria eta Vicen gurasoak lagunduta. Pausoak ematen ari da, oso pixkanaka. Urte batzuk atzera aulki mekaniko batean mugitu behar zen ezinbestean, Gena01 genearen mutazioak mugitzeko gaitasuna mugatzen baitio. Gaixotasun arraro bat du Markelek, eta horren ikerkuntza hastapenean dago oso. Ikerkuntza horri abiadura apur bat eman nahirik, eta Markelen kasua ezagutzera eman asmoz sortu zuten hilabete batzuk atzera Aurrera Markelekin elkartea.

Azaroan 26, 27, 28 eta 29rako lau eguneko jardunaldi berezia prestatu dute. Bertan Xabi Salillas izango da protagonista nagusia, 72 orduko etenik gabeko kirol saioa egingo baitu: korrika, martxa, eta igeri. Maria Lesaca amak azaldu du gaixotasunaren nondik norakoa: "GNA01 genearen mutazio baten ondorio da, nire haurdunaldian gertatutakoa. Ez da hereditarioa. Munduan Markelen antzeko eria duten 150 bat lagun daude, Espainian 12 baino ez, eta oso kasuistika ez-



Iñaki Baños Aurrera Markelekin elkarteko kidea, Markel gaztea eta haren gurasoak Maria Lesaca eta Vicen Carmona. CARMONA

berdinekin". Markelen antzeko diagnosia pare batek baino ez dute, mundu osoan, eta horietako bat Kansas-en dago (AEBetan). "Markelek eritasun arina du, baina etorkizunean gaixotasunak nola erasan diezaiokeen arrastorik ez dugu, erabat ezezaguna delako. Kasu gehienetan Markel baino okerrago daude osasunez. Krisi epileptikoak ditu, eta kontrolatzen ez dituen mugimenduak egiten ditu. Ulertze aldera, Parkinson gaitza, baina biderkatua".

Egunez eguneko errutina hau xe omen: "Psikomotor eta gaitasun kognitiboan atzerapen agerikoa dauka. 13 urte ditu. Errehabilitazio intentsiboa egin dugu berarekin haurra zenetik. Ez da batere aktiboa, eta aktibatzen saiatu behar dugu, eroso sentitu dadin. Hoberako bilakera badu, baina oso mantsoa da. Erabateko menpekotasuna du, etengabeko zaintza eta laguntza behar du. Sonda bitartez elikatzen da, eta izaera oneko mutikoa da, jendetasuna daukala esango nuke. Ikastolara joaten da, hasieran eskola berezian, baina ondoren, eskola arruntera joan zedila erabaki genuen, ikaskideekin hobeto erlazionatu zedin, nahiz eta arreta berezia ere jasotzen duen tarteka". Maria amak zaintzen du Markel, batez ere. "Jaitzen da, tablet bitartez piktograma batzuekin komunikazioa sakontzen saiatzen ari gara, oreka, giharrak indartzeko fisio lana egiten dugu, berarekin jolastu, asko gustatzen baitaio. Kexatzen denean ez dugu sumatzen zergatik den, bateko edo besteko mina duen, edota haserre badago zergatik den. Etxean normaltasun batean bizitzen gara, eta etxetik ateratzen garenean ahal dugun toki guztietara eramaten dugu.

Aulki pediatrikoa delako batean mugitzen da Markel, baina espazio tarte laburretan oinez ibil dadin ahalegintzen dira gurasoak.

Gaitza arraroa ikertzen ari dira, pixkanaka, "eta jakiten ari garena da kontrolatzen ez dituen mugimendu horiek bizirik irauteko funtsezkoak diren organoak, edo digestio aparatua kaltetu ditzakeela".

Espainian ikerkuntza ekimenen bat zabaltzeko ahaleginean ari dira, hainbat ekitaldi antolatuz, eta Espainiako GNA01 elkartea laguntzeko. Ikerkuntza hastapenean omen dago. "Europar ezer ez, eta AEBetan zerbait aurreratu xego", Vicen aitaren esanetan. "Aldagai asko ditu Markelen gene horrek, eta Vall d'Hebron erietxean ikertzen ari dira, Katalunian. Inork ez daki ezer, Markelen gorputzak erakusten duena izan ezik".

Ikerkuntzan inbertitzeko ere ez omen dira garai onak. "Gaitz arraroetan familiak gara bultzatzen dugun bakarrak. Mantso goaz, baina sugarra bizirik mantentzen dugu. Urnietako Udalak behar bereziak dituzten hurrei zuzendutako partida soziala du, eta laguntza hori jasotzen ari gara. Izan ere, Markelek urtean bitan Madrilen jasotzen duen zaintza intentsiboaren gastua oso handia da. Guretzat, baina batez ere berarentzat, autonomia daukala sentitzea oso garrantzitsua da. Markelek hori sentitzea garrantzitsua dela uste dugu".

**ERABATEKO
MENPEKOTASUNA DU,
ETENGABEKO
ZAINZA ETA
LAGUNTZA BEHAR DU**



Urnietako
udala

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada berezia: 9.700 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

72 orduko kirol maratoia, azaroan



Xabier Salillas kirolari hernaniarra Guria tabernako langilea da. KRONIKA

Xabi Salillas ezaguna da ultrafondoetako proba eta ekimen sozialetan. Hernaniarra da jaiotzez, 46 urte ditu, eta azken urtetan Urnietako Guria tabernan egiten du lan, zerbitzari. Bere bizitzak bi zati ditu: 2005 aurrekoa, eta ondoren Urte hartan bizitza beste modu batean ikusten, ulertzen lagundu zion gertaera bizi izan zuen gertutik: zezen batek akabatu zuen, ia-ia, San Ferminetako entzierro batean. Kirolean bilatu zuen bizipen hark sortu zion ezinegona, eta ultrafondo probetan murgildu zen. Orduak eta orduak kirola egiten den diziplina nekoso hori.

“Ipurterrea naiz berez. Ezin dut ezer egin gabe egon. Lanik egin gabe ere iraun nezakeen ekonomikoki, baina eguna luze egingo litzaidake egonean egonda. Egunak

betetzeko beharra daukat”, dio zintzo, bere lan txanda bukatzeaz. Xabiren azken 15 urtetako bizitza lanean eta entrenatzen pasa dituen orduak dira. “Zerbitzari izan naiz, igeltseroa... Lan ordutegiaren baitan, lana eta entrenatu, hori izan da nire martxa azken urteetan. Goizeko txandarekin banago, arratsalde eta gauean, entrenatu. Goiz eta arratsaldean lan egin behar badut, goizean, eguerdian eta ilunabarrean entrenatu. Patxada ematen dit entrenatzeak, nire munduan murgiltzea”.

Noiz entrenatzen duen esan dugu, baina ez egunero-egunero trebatzen dela. Ez du atsedenik hartzen inoiz: “Beti prestatzen naiz entrenatzeko, eta nekatuta edo gogogabetuta sentitzen banaiz, etxera bueltatzen naiz eta kito. Prestatu eta irten, beti”. Hiruzpalau orduko entrenamendu saioak egiten ditu egunero. Eta beharko, ultrafondoko probak ez baitira txantxetan hartzeko modukoak. Kilometro eta ordu askoko ahalegina eskatzen duen diziplina da, “eta gorputza ohitzen ez baduzu, jai duzu”. Ultrafondoko probak ulertzen saiatzeko Iron-man lehiaketan adibidea jartzen du Salillas-ek, horiek ezagunagoak baitira. Triatletek egiten dituzten probak dira Iron-man probak: 3.86 kilometro igeri, itsasoan, 180 bizikletan, eta bukatzeko, maratoiko distantzia korrika: 42,195 kilometro.

2013an beste norabide bat eman nahi izan zion Salillas-ek bere kirol aktibitateari. Erronka solidarioetan murgildu zen, diru beharra zuen jendeari laguntzeko ekimen berritzaileak, eta hala egin ditu azken urteak. 2013an Etiopiako Wukro hiriko herritarrek laguntzeko erronka burutu zuen

XABI SALILLASEK 72 ORDUKO ETENIK GABEKO ERRONKA SOLIDARIOA EGINGO DU; 24 ORDU EGINGO DITU IGERI, BESTE 24 BIZIKLETAN, ETA BESTE HAINBESTE MARTXAN



Aurreramarkelekin.org webgunearen bitartez musuko solidarioa eskuratzeko aukera dago. AIURRI

Hernaniko atletismo pistan: 700 kilometro, zazpi egunetan, 100 kilometro eguneko. Herriko pertsona eta elkarte askoren laguntza izan zuen Xabik, baita hainbat kirolari ohi ezagunena ere: Aitor Lopez Rekarte, Peio Ruiz Cabestany, Oscar Terol... Jendeak dirua edo bestelako opariak uzten zituen, eta haiekin guztiekin zozketa bat egin zen. 10.000 euro bildu zituen Salillas-en ekimenak.

2014an Esklerosi Anizkoitzaren alde aritu zen, Bartzelonako Sant Vicenç dels Horts herrian (Katalunia). Hiru laguneko taldeak 460 kilometro egin zituen egun bakarrean, garai hartan Guinness errekorra. Oriol Junqueras zen herri hartako alkatea orduan. Tona bat elikagai bildu zuten egun bakarrean. 2017an Astigarragako neskato baten alde aritu zen, gaixotasun arraroak jotako luleneren alde, Udaletxe Plazan. Martxa egin zuen 24 orduz, oinutsik. Urtebete geroago Pausoka elkartearen alde aritu zen, Hernaniko Atsegindegi enparantzan. Zinta batean aritu zen korrika, 48 orduz. Lehen 24ak oinutsik egin zituen, baina bigarren egunean oinetakoak jantzi behar izan zituen, zolak zigor handia jasaten ari baitziren. Halako erakusleho bat jarri zuten, Pausokaren helburuen berri emanez. Xabirekin korrika egiteko aukera

ematen zuten, borondatezko ordainketa baten truke, eta 6.000 euro pasa bildu zituzten.

“Dirua ematea erraza da; bestela lagundu nahi dut”

Zergatik egiten ditu, bada, halako erronka solidarioak Salillas-ek? “Beharra duen jendea laguntzeak motibatzen nau. Azkenean helburua ekonomikoa da, noski, baina diru hori lortzen den moduak balio du. Esan nahi dut, errazena dirua ematea da, denok egin dezakegu gure ekarpena, handiagoa edo apalagoa izan. Nik, baina, herria, Urnietan inplikatu nahi dut, eta nire erronka solidarioa Urnietarena bilakatu”. Urnietan halako erronka bat egingo den lehen aldia izango da, eta erronka azaroa bukaeran bada ere, Salillas-ek eta Markelen senideek lehenbailehen hasi nahi dute ekimenaren berri ematen.

Salillas-ek Guria tabernan ezagutu zuen Markel Carmona eta bere familia. Harremana sendotu egin zen, eta sendotzearekin bat otu zitzaion Xabiri erronka solidario bat egitea. “Markelen eta bere familiaren egoera ezagutaraztea, eta haientzat sos batzuk biltzea du helburu bakar erronka honek”, dio Salillas-ek, bere kirol jardunari protagonismo guztia kendu nahian.

Xixori
BELARDENDAK ANDOAINEN

Txitibar, 4
☎ 943 245 023

Eskola kalea, 3
☎ 943 590 199

2019
50
urte

ondarreta ikastetxea

ONDO PASA FESTETAN!

LEIZARAN
INSTITUTUA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Vanessa Pelaez, gertutik

ATLETISMOA Federazioak egin dion elkarriketa pertsonalean sorterriari buruzko aipamenak egin ditu

Erredakzioa ANDOAIN

Mendiko lasterketa bat? Malkar Krosa (Andoain, Gipuzkoa).

Egiteko duzun lasterketa bat? Galizian korrika egiteko gogo handia daukat.

Entrenatzeko leku bat? Buruntza mendiaren ingurua.

Mendi korrikalari euskaldun bat? Euskal Herriko mendietatik gozatzeri irteten den edonor.

Inoizko mendi korrikalaririk onena?

Bere kabuz, konstantea dena eta egunero esfortuz lanean aritzen den edozein korrikalari herrikoi.

Beste kirol bat? Paddle surfa, txirrindularitza, patinaia, frontenis...

Kirolari bat? Raul Gutierrez, bi-ketrikaleko txapelduna.

Sare sozialetan gehien jarraitzen duzun kirolari bat? Kirola egiten duten inguruko lagunak.

Abesti bat? Lo mejor está por llegar (El sueño de Morfeo).

Musika talde bat? El sueño de Morfeo.



Vanessa Pelaez, Malkar krosean. AIURRI

Telebistako programa bat? Equipo de investigación.

Oporretarako leku bat? Sao Miguel (Azore uharteak, Portugal).

Argazki bat? "Hau da aukeratu dudana argazkia. Aitak, lasterketa guztiak amaitzean ematen didan besarkada, nire heroia da".



Pelaezek gustuko argazkia aukeratu du. Aitaren alboan ageri da, argazkian. PELAEZ

Leizaran taldean izena emateko aukera zabalik dago

ESKUBALOIA Leizaran Eskubaloian 2020/21 denboraldian jokatzekeo deialdia zabaldu dute. Aurten 2009an jaiotakoek infantil mailan aritzeko izena eman ahalko dute. Aste honetan zabaldu dute deialdia, datorren uztailaren 15 era bitarte. Informazioa eskuragarri dago www.leizaraneskubaloia.com webgunean.


Andoaingo igerilekua zabalik dago abonatuentzat

KIROLDEGIA Igerilekua zabalik dago, ohiko ordutegian eta abonatuentzat soilik. Joan aurretik erreserba egin behar da telefonoz. Bestalde, urteko bonoaren zati baten itzulketa egingo dutela iragarri dute: "Zati proportzionalari dagokion itzulketa martxoaren 15etik ekainaren 15era bitartekoa izango da, eta laster gauzatuko da".

Urnietako kirol instalakuntzen zerbitzua handitu dute

KIROLDEGIA Berrasoetako etxolatan hainbat jarduera egiteko aukera dago, kiroldegia berritzen duten bitartean. Hasiera batean, asteen bitan. Aste honetan hasita, ordea, asteen lau aldiz kirola egiteko aukera izango da. Tokiaren erreserba aldeztu aurretik egin behar da 943 00 83 28 telefono zenbakira deituta.

Hemeroteka: Iturria jubenilaren garaipen ikusgarria Sanjuanetan



Mikel Iturria eraso bizian, Kaletxikin gora, Urigain parean zegoen helmugaren bila. AIURRI

2010eko San Juan jaietan Mikel Iturria jubenil mailako txirrindularia zen, Andoaingo Eskola taldean aritzen zena. Urnietarrak markatxo jarri zuen jubenil mailan garrantzia handia duen Gipuzkoako Itzulian, eta bide batez poz handia eragin zuen Andoaingo txirrindulari taldean. Maila bikaina zuen, eta gerora profesionalen artean lekua duela erakutsi ahal izan zuen. Txirrinduzaleen memorian betiko geratuko da Espainiako Vueltan iaz lortu zuen garaipena.

2010eko ekainean, Kaletxikitik gora ihesi, Urigain aldeko azken maldatan lortu zuen garaipena. Ibilbidearen ezagutza garaipena eskuratzeko gakoetakoa izan zela aitortu zuen, orduan. Etxe ondoan lehian aritzearen abantaila, zalantzarik gabe: "Itzuliko liderrak azken metroetan oso gogor jo zuen, neuk ordea ibilbidea ondo ezagutzen dut eta nire martxa hartu nuen. Bukaera ondo iritsi nintzen eta nuen guztia eman nuen helmugaraino". Sekula ahaztuko ez duen garaipena izan zen, "nire garaipen politena da. Mundu guztia animatzen ari zitzaidan, nire koadrilakoak ere bertan ziren. Oso polita izan zen". Eskolakoak pozarren ziren, Iturriak marka berria jarri zuelako: "Eskolako denek zoriondu ninduten. Aurrenekoa nintzen eskolako elastikoarekin Andoaingo helmugara garaile iristen".

Ibilbidearen ezagutza, lagunaren animoak errepide bazterrean, ihesaldian iritsi izana... Perspektibarekin ikusita, 2010ean jubenil mailan irabazi zuen etaparen eta 2019ko irailaren 4an Espainiako Vueltan lortu zuen garaipenaren arteko antzekotasunak txundigarriak dira.

Itzaletik aterako gaituen argia zara

S2 SALKIN
bertatik bertara
ANDOAINEN BIZI,
ANDOAINEN EROSI

ORMENDI KIROLAK

Egoera berezia. Ekainak 24 berezia!

943 59 18 06

Kale Berria, 2. ANDOAIN.
ormendikirolak@euskalnet.net



Erosketa bonoak erabilgarri Urnietan, ekainaren 29tik aurrera

Saltoki eta autonomoei begira, 195.000 euroko laguntza zuzena izango da. Merkataritza sustatzeko, bestalde, 30 euroko 7.000 bono banatuko dira. Bonoen kanpainan parte hartzeko merkataria aurretik izena eman beharra dauka

Erredakzioa URNIETA

Urnietako merkataritza eta os-talaritza sektorean kontsumoa areagotzeko, bono bidezko kanpaina bideratuko da. Udalak 70.000 euro bideratuko ditu zeregin horretara. 20 euro ordaindu eta 30 euroko balioa duen erosketa egin ahal izango da. Eroslearen gastu erreala, beraz, 20 eurokoa izango da. Gainerako 10 euroak Udalak jarriko ditu.

Herritarrek aipatutako 30 euroko bi bono-sorta mota erosi ahal izango dituzte. 5 euroko 6 bono edo 10 euroko 3 bono erosi ahal izango dituzte.

DENDARIEK AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DUTE

Bonoen kanpainan parte hartu nahi duen saltokiak ekainaren 23a baino lehen eman beharko du izena. Eskabidea egiteko Urnietako Udalaren webgunean eskura dagoen orria deskargatu eta bete beharko dute. Zalantzak argitzeko 688 776 267 telefono zenbakian informazio osagarria eskainiko dute.

Bonoak salgai izango dira ekainaren 29tik aurrera. Azaroaren 30a bitarte indarrean izango da bonoen balioa.

Bonoekin bezala, Udalak krisiaren hasieran iragarri zituen kenkariak gogora ekarri nahi



Udalak abian jarri duen sentsibilizazio kanpainako irudietako bat. UDALA

izan ditu. Ohar bidez adierazitakoaren arabera, "Udalak aldatketak egin zituen uraren eta zaborraren tasetan, eta terrazak handitzea ahalbidetu zuen. Kenkari horiek guztiek 70.000 euroko balioa dute Udalaren diru-sarreretan.

LAGUNTZA ZUZENA MERKATARIEI

Urnietako Udalak 1.500 euroko laguntza zuzena eskainiko dizkie pandemia gehien kolpatu dien dendariei. Aipatu laguntza "Urnietan merkataritza- edo ekonomia-jarduera garatzen duten eta

udalerrian lokal irekia duten pertsona fisiko edo juridikoei zuzenduta egongo da, baldin eta itxi egin behar izan badute edo apirilean fakturazioa %70 baino gehiago murriztu badute aurreko seihilekoaren batez bestekoa-rekin alderatuta".

LAGUNTZA ZUZENA AUTONOMOEI

Euren jarduna eten egin behar duten edo fakturazioa %70 baino gehiago murriztu zaien autonomoei, 350 euroko laguntza-finkoa emango die Udalak.

Eskabideak aurkez daitezke ekainaren 18an hasi eta uztailaren 1a bitarte. Eskabidea egiteko, Urnietako Udalaren webgunean eskura dagoen orria deskargatu eta bete beharko dute. Webgunean bertan aurkez dezakete eskabidea, eta baita Bertan herritarren arretarako bulegoan hitzordua eskatuta ere. Telefono zenbakia honakoa da: 943 00 80 00.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hilabetekoa da gehienez. Eskabidea onartuta, ordainketa bakar baten bidez ordainduko zaio onuradunari.

20 EURO ORDAINDU ETA 30 EUROKO BALIOA DUEN BONOAK ESKURATU AHAL IZANGO DA URNIETAN

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Iosu Guirado Alcora
Etxeko handiak 5 urte jada! Hau bai marka. Muxu erraldoia!



ANDOAIN
Nahia
6 urte beteko ditu ekainaren 23an. Asko maite zaitugu, aitona Peio eta amona Espe.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez. Erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

- Webgunea: www.aiurri.eus.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Whatsapp: 619 163 537.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 20 eta igandea 21
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 20 eta igandea 21
TENA: Kale Nagusia, 16.
943 557 738. Astigarraga.

Euskaraldia enpresa, erakunde, elkarte eta entitateei begira

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean ospatuko da Euskaraldiaren bigarren edizioa

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaraz gehiago eta eroso aritzeko hizkuntza ohiturak aldatzea du xede, Euskaraldiaren aurtengo edizioak. "Ariguneak" euskaraz eroso aritzeko guneak dira, pertsonen osatuak eta tal-

de ariketa egingo dutenak. Batzuk Ahobizi izango dira, eta besteak Belarriprest. Sektore ezberdinetako ehunka enpresa, erakunde eta elkarte ari dira bat egiten Euskaraldiarekin, hala nola erakunde publikoak, finantza

erakundeak, industria alorreko enpresak eta kooperatibak, merkatal kate handi eta txikiak, kirol elkarteak, aisialdi taldeak...

Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko presidentek aurtengo edizioaren aurkezpenean adierazi duenez, "Aurreko Euskaraldian ikusi zen hizkuntza ohiturak aldatzea posible dela eta euskararen aldeko urrats praktikoak ematea posible dela. Euskararen aldeko herri gogo bat eta euskara bizi nahi duen herri bat ere bistarazi genituen".



Donostian egin zuten aurkezpen ekitaldia, Tabakaleran. AIURRI



"Lamiak eta Lloronak" egitasmoa asteazkenean aurkeztu zuten. AIURRI

Kulturartekotasuna oinarri duen erakusketa irekia, kalez kale

Artista ezberdinen margolanak ikusgai izango dira Andoaingo kale eta plazatan, ekainaren 26ra bitarte

Xabier Lasa ANDOAIN

Munduko pertsonaia mitologiak eta kondairak oinarri izanda, margolanen bidezko kulturarteko elkarrizketa sustatzea du helburu "Lamiak eta Lloronak" erakusketak. Eta horretarako, Andoaingoak eta jatorriz beste herrialdeetakoak diren margolariak sortu dituzten artelanak Andoaingo bost auzo eta plazatan ikusgai jarriko dira. Zehazki, hauetan: Ama Kandida hiribidea, Goikoplaza, Bastero plaza, Zumea plaza eta Karrika.

Ainhua Marquez, Eduardo Arreseygor, Olaia Zapiain, Itziar Gutierrez, Iñaki Gozalo *Wentxi*

KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEA HELBURU DU KALEAN IKUSGAI JARRI DUTEN ERAKUSKETAK

eta Juanan Lazkano dira ekimenean parte hartu duten Andoaingo artisten izenak. Erakusketa irekia ekainaren 18tik datorren 26ra bitarte egongo da ikusgai.

Margolanen artean gogokoena dutena bozkatzeko aukera izango dute ikusleek. Bi eratara egin ahal izango dute hautaketa: QR kodearen bitartez edota Udaletxean, Gizarte Zerbitzuetan edo kiroldegian aurki daitezkeen afixak betez. Erakusketa Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Ongi Etorri Eskolara ekimenak antolatu dute, elkarlanean.

GIZARTE ZERBITZUEN LANSAILAK ETA ONGI ETORRI ESKOLARA EKIMENAK ANTOLATU DUTE, ELKARLANEAN

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana

Andoaingo Udalak hirugarren plana prest du. Lanketa prozesuan gizarte eragileek parte hartze aktiboa izan dute, eta planaren garapenean bereziki garrantzitsua izango da herriko elkarte, eragile eta norbanako guztien parte hartzea

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo II. Berdintasun planaren indarraldia agortuta, 2019. urtean egitasmo hark emandakoak ebaluatu ziren. Ebaluazio txosten horretan oinarriturik, eta udaleko arlo ezberdinen kolaborazioari esker sortu da Andoaingo emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Plana.

Andoaingo Udalean bertan, eta udaletik herrira burutzen diren ekintzetan berdintasun ikuspegia txertatzeko baliagarria izango da. Era berean, ohar bidez, gizarte eragileen parte hartzea ezinbestekoa izan dela adierazi dute "Zuena elkarte, jabeakuntza eskolako dinamiztzaileak eta mugimendu feminista zein eragile ezberdinen inplikazioa ere ezinbestekoa izan da plan honen elaborazio prozesuan, eta exekuzioan ere bereziki garrantzitsua izango da herriko elkarte, eragile eta norbanako guztien parte hartzea".

Udalak helburu eta helmuga errealak markatu dituela dio, eta aldi berean "neurgarriak eta testuinguruari egokitutako adierazleak ezarri dira". Plank, gainera, "zeharkakotasunez erabiltzeko tresna bat izan behar du; maila honetan, beste arloetako programa eta planekin uztartze-ko ahalegin berezia egin da".



Plana landuta dago, eta orain garatzen hasi beharra dago. ANDOAINGOUDALA

Andoaingo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana, EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. planean oinarriturik, 4 esku-hartze ardatzetan egituratu da:

PLANAREN LANKETAN ETA GARAPENEAN GIZARTE ERAGILEEN INPLIKAZIOA EZINBESTEKOA DA

Ardatzak

1. Gobernu ona.
2. Emakumeen ahalduntzea.
3. Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea.
4. Indarkeria matxistatik gabe-ko herria.

Garatu daitezkeen 70 ekintza zehaztu dituzte: "Ekintza berri-tzaileen artean daude gizonei zuzendutako ardatz bat maskulinitatei buruz hausnartzeko, eta bestetik, LGTBI kolektiboari zuzendutako ekintza bat".

INAXI
GOZOTEGIA
50 urte



1€
Pastelak
eta bonbak



Ekainak 21, 22, 23 eta 24 goizetan, urteurrena zuekin ospatu ahal izateko